



**LAZKAOKO
UDALA**

**2023KO EKAINAREN SEKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren 5ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko maiatzaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren, premiak eraginda eta hurrengo Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura epe laburrean egingo ez zenez, alkatetzaz onartutakoen berri eman da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

III.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 33 zenbakidun fakturen zerrenda, BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMABOST euro ETA LAUROGEITA ZAZPI zentimokoa (291.455,87 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

IV.- LAZKAOKO HILERRIAN HAINBAT ZERBITZU EMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

2023ko martxoaren 22ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, Lazkaoko udalaren hilerrian zerbitzu jakin batzuk emateko kontratua prozedura ireki sinplifikatu bitartez eta lehiaketa bidez esleitzeko Berariazko Klausula Administratiboan eta Preskripzio Teknikoen pleguak eta kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zen.



Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean 2023ko martxoaren 22an jarri zen.

Eskaintzak aurkezteko epean, bi proposamen aurkeztu ziren:

1.- LANDARRI, S.L.

2.- HARGOI HILERRIA, S.L.

Aurkeztutako bi proposamenak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa eta balio-iritziei lotutako irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen zituzten 1. artxibo elektronikoak 2023ko apirilaren 12an, eguerdiko 12etan, ireki ziren.

Onartutako enpresek aurkeztutako balio-iritziei lotutako irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioek lortutako puntuazioa ondorengoa da:

ENPRESAK	Plangintza (9 puntu)	Analisia eta deskribapena (16 puntu)	GUZTIRA (25 puntu)
LANDARRI, S.L.	7	14	21
HARGOI HILERRIA, S.L.	9	16	25

2023ko apirilaren 19an, eguerdiko 12etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, proposamenek balio-judizioei lotutako irizpideak aplikatuta lortutako puntuen berri eman zen, eta, jarraian, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuten 2. zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ziren.

Hauk izan ziren onartutako 2 enpresek aurkeztutako eskaintzak eta bakoitzak lortutako puntuazioak:

ENPRESAK	Baja Orokorra (%)	PUNTUAK (75 puntu)
LANDARRI, S.L.	2,00	75,00
HARGOI HILERRIA, S.L.	1,98	74,25

Beraz, aurkeztutako enpresen puntuazioen sailkapena, handienetik txikienera hau izan da:





ENPRESAK	Balio judizio baten arabera	Irizpide automatiko- en arabera	GUZTIRA
	Puntuak	Puntuak	Puntuak
HARGOI HILERRIA, S.L.	25	74,25	99,25
LANDARRI, S.L.	21	75	96

Ondorioz, eta lehen sailkatua Hargoi Hilerrria, S.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

Hargoi Hilerrria, S.L.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak Hargoi Hilerrria, S.L.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia honela, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Lazkaoko Udalaren hilerrian zerbitzu jakin batzuk emateko zerbitzu kontratuaren esleipena HARGOI HILERRIA, S.L. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, kontratuak iraungo duen 3 urterako, HOGEITA HAMAIRU MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABI euro ETA HOGEITA BOST zentimo (33.552,25€) gehi BEZari dagokion ZAZPI MILA ETA BERROGEITA BOST euro ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI zentimokoa (7.045,97€).

Bigarrena.- Esleipenaren akordioa, proposamena aurkeztu duten enpresei jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaraztea.

V.- LAZKAOKO UDALAREN ONDAREZKO ASEGURUEN ETA ASEGURU PERTSONALEN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udalaren ondarezko aseguru eta aseguru pertsonalen kontratazioa, prozedura ireki bitartez eta lehiaketa bidez esleitzeko beharra hauteman dute Udal zerbitzu teknikoek.

Alkora aseguru-artekaritzak, aholkularitza zerbitzua eman dio Udalari plegu tekniko eta berariazko klausula ekonomiko-administratiboaren pleguen idazketarako.

Udal zerbitzu teknikoek zerbitzu hau kontrataziora ateratzeko baldintza tekniko eta administratiboak eta kontratazio espedientea prestatu dituzte.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, erabaki hauek hartu ditu:



Lehenengoa.- Lazkaoko Udalaren ondarezko aseguru eta aseguru pertsonalen kontratazio espedientea eta honek barne hartzen dituen baldintza teknikoen eta baldintza administratiboen pleguak onartzea.

Bigarrena.- Lizitazio deialdia egitea iragarkia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuz.

VI.- PLAKA FOTOVOLTAIKOEN HONIDURA ETA INSTALAKUNTZA LANEN 3. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Lazkaoko San Prudentzio ikastetxean, Arerian eta frontoian autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak hornitzeko eta instalatzeko lanen obra zuzendaritza darman Jorge Gomez Prieto ingeniariak, IP21 Ingeniería de Proyectos S.L. enpresakoak, lanen hirugarren obra egiaztagiria egin du.

Obra egiaztagiri honen zenbatekoa HIRUROGEITA HAMAIKA MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HIRU euro ETA LAU zentimo (71.823,04 €) gehi BEZari dagokion HAMBOST MILA ETA LAUROGEITA BI euro ETA LAUROGEITA LAU zentimo (15.082,84 €) da, LAUROGEITA SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA BOST euro ETA LAUROGEITA ZORTZI zentimo (86.905,88 €).

Hornidura eta instalakuntza lanak Tapia Instalazio Elektrikoak S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hirugarren obra egiaztagiri hau aho batez onartu du.

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 17-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2023ko maiatzaren 21ean bere borondatez.
- 22-11-06 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2023ko maiatzaren 24ean heriotzagatik.
- 19-11-03 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2023ko maiatzaren 3an bere borondatez.
- 12-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan aportazio ekonomikoa aldatzea % 15etik % 2ra, onuradunaren egoera ekonomikoa aldatu delako.





- 18-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2023ko apirilaren 30ean heriotzagatik.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 17-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea maiatzetik, diru sarreretan aldaketak egon direlako.
- 22-01-015 zenbakidun esped.: alokairuko eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea maiatzetik, diru sarreretan aldaketak egon direlako.

Esku-hartze proposamena.-

- 23-15-03 zenbakidun esped.: balorazio esku-hartze psikoterapeutikoa egitea eta hura egiteko 828 €-ko aurrekontua onartzea.
- 23-15-02 zenbakidun esped.: balorazio esku-hartze mistoa (soziohezitzailea eta psikologikoa) egitea eta hura egiteko 5.649 €-ko aurrekontua onartzea.

Udal zerga eta tasak ordaintzen laguntzeko dirulaguntza.-

Udal zerga eta tasak ordaintzeko laguntzak emateko aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, bere espedienteetan dauden 40 zergadunen eta bakoitzari dagokion zenbatekoaren arabera, guztira 13.308,66 €-ko dirulaguntza ematea.

Gazte laguntzaileentzat bekak.-

Irati Garmendia Aranbururi 2023ko uztailaren 29tik 2023ko abuztuaren 24ra Mo-yon, Uganda, Arua Elkartasuna Gobernu Kanpoko Erakundea garatzen ari den Manuela proiektuan bolondres gisa lankidetzan lan bat egiteko 2.000 € dirulaguntza ematea. Zenbateko honen %50 orain ordainduko zaio eta beste %50 bidaia egin ondoren.

Ludoteka eta kirol ikastaro zerbitzurako dirulaguntza.-

Haur hezkuntza 3 urtetatik lehen hezkuntzako seigarren maila artean dauden 8 haurri, bere espedienteetan zerrendatzen direnak, ludoteka zerbitzura joateko ordaindu beharreko kuotaren pareko dirulaguntza ematea, guztira 600,00 €.

Udako kirol kanpainako ikastaroen barruan haur batentzako kirolanitzak jarduerara joateko kuotaren pareko diru laguntza ematea, guztira 96,55 €.

Dirulaguntza guztira 696,55 €-koa izango da.

VIII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:

- Gida baimena euskaraz ateratzeagatik.-

Gida baimena euskaraz ateratzeagatik, bere espedientean dagoen lagun bakarrari 100 € ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.02.335.00 partidatik egingo da.

- Euskara ikasten ari direnei.-

2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaiona 320 € dira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

IX.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Antzar konpartsa, Lazkaoko erraldoi eta buruhandi elkarte taldea.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €ko dirulaguntza aurreikusi zen. Orain, ordaintzeko falta den %40aren erdia, hau da 1.000 €, ordaintzea onartu da.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 481.10.334.00 partidatik ordainduko da.

- Antzar Korrikalariak taldeari.-

2023. urteko Lazkaoko jaietan, apirilaren 28an, bikoteen lasterketa antolatzeagatik 4.582,94 €-ko dirulaguntza ematea.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.


- Gerriko Kultur Elkarteari.-

2023ko Laburbira, euskarazko film laburren XX. zirkuitua, antolatzeagatik 441,40 €-ko dirulaguntza ematea.

- Oin Arin Dantza Taldeari.-

2023ko Lazkaoko jaietan, maiatzaren 1ean, Suelto Dantza Txapelketa antolatzeagatik 1.793,20 €-ko dirulaguntza ematea.

Lazkaoko Musika Bandari.-



2023. urteko Lazkaoko jaietan, maiatzaren 1ean, Diana eta Kontzertua antolatzea-
gatik 1.500 €-ko dirulaguntza ematea.

X.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri
dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, ho-
nako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean mar-
txan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkata-
rik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien mer-
katariei bosgarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
JOSE ANGEL MATIAS FUENTES (FRUT.)	2.560 €
ALBERTO SUKIA (SUKIA HARATEGIA)	640 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	345 €
ALAITZ ZUBIZARRETA OTAEGI (MAGALA)	80 €
OPILTXO SL (BIKA)	30 €
GUZTIRA	3.655 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

XI.- LAZKAOKO MIKEL GOIAINGERU PARROKIARI OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZA.-

Mikel Goiaingerua parrokiak Lazkaoko Udalari eliz atariko xilofagoen aurkako trata-
mentu lanei aurre egiteko dirulaguntza eskaera egin dio, eta honekin batera 25.313 € +
BEZeko aurrekontua aurkeztu du.

Tokiko Gobernu Batzordeak, Alkatearen proposamenaren aurrean, lan hauei aurre
egiteko 3.000€-ko dirulaguntza ematea onartu du aho batez.

XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.



XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.




LAZKAOKO
UDALA



LAZKAOKO
UDALA